

A large, stylized green logo featuring a ladder-like structure on the left side of a large letter 'E', with the text 'EKOAPP' in a bold, green, sans-serif font below it.

**Patri Gomez , Iزارo Garcia eta Ainhoa Perea**

## BALOREZKO PROPOSAMENA

Gure aplikazioa mundu mailan dugun arazoa konpontzeaz arduratzen da, gure egunerokotasunean planetak jasaten duen kutsadurari dagokionez. Gainera, gure aplikazioari esker, jendea edo enpresak (erabileraren arabera) kutsatu dezaketen guztiaz kontzientziaz ere bilatzen du.

Beraz, Kutsatzen dugunari buruzko jarraitutasuna egiteko aplikazio bat da Ekoapp.

Deskargatzen duzunean, aplikazioak galdetegi bat egiten dizu, zure egunerokotasunean nolako ohiturak dituzun jakiteko, oro har, ingurumena zaintzeko, horrela, gauetan, galdera hauek erantzun eta gero zenbateko kutsadura eragiten duzun adierazten ditu ehunekotan neurtuta. Gainera, zure ohiturak eta ekintzak semaforo bat erabiliz koloreen arabera sailkatzen ditu (berdea, horia eta gorria),

Gorriak ohiturak guztiz aldatzeko momentua dela ohartaraziko du. Berdeak aldiz kusatze maila egokia dela adierazten du. Bien artean egongo da horia, ohitura batzuk aldatu beharko direla adieraziko duelarik.

Bestealde, enpresarentzat ere badago aplikazioa erabiltzeko beste modu bat. Hainbat galdera egiten dira bertan: zer fabrikatzen du enpresak? Zenbat egunetan dago irekita enpresa astean? etab. Enpresa batek semaforoa gorritz badu denbora luzez, aplikazioak enpresari buruzko datuak gobernuari bidaltzen dizkio eta neurriak hartzen dira.

Gure ustez, gure ideia ez da inoiz garatu guk garatu dugun moduan; gainera, gure aplikazioa animatua eta didaktikoa izango litzateke adin eta enpresa guztietako jendeak erabili ahal izateko.

Gainera, gure aplikazioak arrakasta izango balu, aurrera egin genezake, gauza gehiago gehituz eta eguneratuz, esaterako, kutsadurarekin zerikusia duten jolasak edo jarduerak gehituz.

